

Udalak Zurriolako zubiko farola historikoak zaharberritzeari ekin dio

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Sailak hiriko elementu enblematiko horietan zeuden eranskailuak kendu, eta farolak guztiz garbitu eta margotu ditu.

Donostiako Udalak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Sailaren bitartez, Zurriola zubiko farola historikoak alde zaharberritzeari ekin dio, azken hilabeteotan bertan eranskailuak eta itsasgarriak pilatu direla ohartuta.

Lan hauek egin dira: itsasgarriak kendu, erasandako gainazalak garbitu eta lixatu, eta, gaur goizean hasita, egiturak pintatu, jatorrian zuten itxura itzultzeko. Lanek aurrera jarraituko dute datozen egunetan, farola guztiak beren onera ekartzen amaitu arte.

Farola horiek 1921ean jarri ziren, zubia eraikitzearekin batera, eta Donostiako hiri-ondarearen osagai dira. Urumearen bokaleko paisaiaren elementu ezagunenetako bat dira, eta mende bat baino gehiago daramate Gros auzoa eta Erdialdea lotzen. Zubiko farolak Donostiako inguru horren bilakaeraren lekuko izan dira, antzinako Kursaal Handiaren garaitik egungo Biltzar Jauregira arte, eta hiriaren nortasunaren eta hiri-memoriaren berezko elementuak dira.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo Garcíak azpimarratu duenez, "Donostia bere xehetasunengatik ere da ezaguna. Farola horiek ez dira bakarrik argiteria publikoko elementuak; gure historiaren, gure paisaiaren eta babestu nahi dugun hiri zaindu honen parte dira».

Garcíak adierazi du lan horiek Udalak esparru publikoa zaintzeko duen konpromisoaren adibide bat direla: "Gure betebeharra da hiriko elementuak mantentzea eta berreskuratzea, baina gogorarazi behar dugu esparru publikoa guztion delakoa. Eranskailu bakoitzak, pintada bakoitzak nahiz gizalegearen kontrako ekintza bakoitzak behartzen du Udala baliabideak gastatzera kalteak konpontzeko, errespetuz eta erantzukizunez jokatzeko gero inoiz gertatuko ez ziren kalteak konpontzeko, hain zuzen».

Zibismoaren Udal Ordenantzak debekatutako eta zigortutako praktika

Udalak gogorarazi du hiri-altzarien gainean eranskailuak, kartelak edo itsasgarriak jartzea ez dagoela baimenduta, eta horrek Zibismoari, Bide Publikoaren Erabilerari eta Garbiketari eta Hiri Paisaiaren Babesari buruzko Udal Ordenantza urratzea dakarrela.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udal araudiaren arabera, farolak hiri-altzarien parte dira. Horregatik, errespetatzeko betebeharra ezartzen du, elementu horiek zikintzen, kaltetzen edo hondatzen dituen edozein ekintza debekatuta. Gainera, Ordenantzaren 42.2 artikulua berariaz ezartzen du debekatuta dagoela, Udalaren baimenik izan ezean, hiri-altzarietan "izaera politikoko edo bestelako eranskailu, kartel, paskin, pankarta edo banderola mota oro" jartzea.

Artikulu hori ez betetzea arau-hauste larri moduan tipifikatuta dago, eta 201 eurotik 500 eurora bitarteko zehapen ekonomikoak ekar ditzake. Gainera, erasandako elementua garbitu, konpondu edo bere onera ekartzeak ekarritako kostuak ere erreklamatu ditzake Udalak.

"Kontua ez da farola bat garbitzea bakarrik. Donostia hiria identifikatzeko balio duen osagaietako bat babestea da helburua. Hiria garbi eta zainduta mantentzea Udalaren eta herritarren artean partekatutako zeregina da", amaitu du Garcíak.